

EUSKAL HERRIKO III. GRAFFITI LEHIAKETA

GAZTEEN SORMENA ETA EKOIZPEN ARTISTIKOA SUSTATZEKO LEHIAKETA

HELBURUAK

- Gazteen sormena eta ekoizpen artistikoa sustatzea
- Gazteen izaera sortzailea eta beraien ekoizpen artistikoak gizarteratzea

BALDINTZAK

- 15 urte baino gehiago duten Euskal Herriko gazte euskaldunek parte har dezakete.
- Bakarka nahiz taldekako parte-hartzea onartuko da. Taldea gehienez lau lagunek osatuko dute.
- Teknika eta gaia libreak izango dira.
- Graffitiarekin testuarekin aurkezten bada, testua euskaraz idatzi beharko da.
- Lanak originala, norberak sortua izan behar du eta ezin izango da beste lehiaketa batean aurkeztutako obrarik aurkeztu.
- Graffitiaren zirriborroa DIN A3 formatuan eta koloreetan aurkeztuko da. Gaia, diseinua eta koloreak baloratuko dira.
- Aurkeztutako zirriborro guztien artean, hamar aukeratuko dira. Horiexek izango dira, irailaren 16an Tolosan, goizeko 10.00etatik aurrera buruz burukoan lehiatuko direnak. Horretarako horma bana esleituko zaie.
- Lehiakideek Montana Cans-en Gold gamako sprayak erabiliko dituzte 2,5 x 5 metro inguruko hormetan graffiti egiteko.

ESKABIDEAK

Zirriborroak, ekainaren 13tik aurrera eta abuztuaren 31a baino lehen ondoko helbidean aurkeztu behar dira:

TOPAGUNEA Euskara Elkarten Federazioa
Arlozabal 8 bis, 1C. 48220 Abadiño (Bizkaia)

IZEN-EMATEA

Parte-hartzaileak, gutunazal batean, ondoko datuak eman beharko ditu:

- ✓ Obraren izena
- ✓ Behar dituzten koloreen erreferentzia eta kopurua
- ✓ Egilearen izen-abizenak. Taldeen kasuan, taldeko kide bakoitzaren izen-abizenak.
- ✓ Nortasun Agiriaren fotokopia. Taldearen kasuan, taldeko kide bakoitzaren Nortasun Agiriaren kopia.
- ✓ Helbidea, telefonoa eta posta elektronikoa. Taldearen kasuan, taldeko kide bakoitzaren datuak.

Gutun azalean “**Euskal Herriko III. Graffiti Lehiaketa**” adieraziko da. Behin lan guztiak jaso ondoren, epaimahaiak hormen esleipena egingo du. Lehiaketa irailaren 16an izango da Tolosan (Gipuzkoa). Sari banaketa egun berean egingo da.

SARIA

1.200 euroko hiru sari banatuko dira:

- Teknikaren erabilpen egokienari
- Koloreen erabilpen egokienari
- Graffiti original eta freskoenari

Gainera, EuskoLabel duten hainbat produktuz osatutako sari berezi bat ere emango da.

ANTOLATZAILEAK

TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa

Tolosa 750. Urteurrena Fundazioa, Galtzaundi Euskara Elkartea.

BABESLEAK

Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, Kutxa, Tolosako Udala, Montana Cans-Fergasor, Kalitatea Fundazioa.

INFORMAZIOA:

TOPAGUNEA Euskara Elkartearen Federazioa

Gazte Saila – Amaia Alberdi

946215116 edo gazteak2@topagunea.com